

ZAM

ZORROTZ MORROTZ

59. ZBKIA 2019ko IRAILA

RAÚL MÉNDEZ

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO DIPUTATUA

BIZKAISALSA DANTZA ESKOLA

Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Sabino Arana, 53

48013 Bilbo

Tel. 946551773

Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

Euskaltegiak zabalik

2019-2020
matrikula orain



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

**ESKAINTZarik ONENA
ZORROTZatik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



Kurtso berri bat eta hainbat gai esku artean

Kurtso berriari hasiera damaio. Deskantsatu eta ondo pasatu izana espero dugu. Iraila heldu da, eta gure auzoko jaiak hasiera doaz! Horregatik, parte hartzeko eta guztion artean ondo pasatzeko deialdia egiten dugu.

Eta nola ez, Jai Batzordeko kideak zoriandu behar ditugu, urtean zehar egiten duten lanari izaten baitugu esker Zorrotzan beti hain festa "potenteak". Auzoko Herri Mugimenduan landu beharreko hainbat gai ditugu oraindik: FEVEko egoeraren jarraipena, Sader, martxan dauden eta jarraitu behar duten proiektuak, baita eragin txikiagoko baina garrantzitsuak diren beste gai batzuk ere...

Gogoratu behar da berriro ere, aurten Zorrotzako Auzolagunen Elkarteen 50. urteurrena dela. Amaitzeko, Auzo Elkar-
tea asteartero 19:00etatik aurrera biltzen dela Gizarte Zentroan errepikatu nahi dugu. Horretan gaude: indarra eta aurrera!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldizkaria
59. zenbakia. 2019ko iraila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratxe Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saúl Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen du baina ZM da edukien erantzule bakarra



ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Argazkineta, Bilboko auzoen oroitzapen eta testigantzak biltzeko proiektu berria, Zorrotzatik abiatuko da

Igor Gutiérrez

Bilboko Udaleko Kultura Sailak Argazkineta proiektua martxan jarri du. Bere funtsa Bilboko auzoen oroitzapen eta testigantzak biltzea da eta Zorrotza aukeratu dute hura abiatzeko. Horretarako, furgoneta bat auzoan zehar ibiliko da urriaren 10etik 24ra bitartean, XX. mendeari buruzko materiala biltzeko: argazkiak, paperean zein digitalizatuak; diapositibak eta argazkien negatiboak; bideoak edo filmak; eta bestelako dokumentuak, hala nola, planoak, egunkari eta aldizkarietako ebakinak, aktak, kartelak, eskuorriak...

Horrez gain, azaroaren 7, 8 eta 9an, ahozko lekukotzak grabatuko dituzte Auzo Etxean, eta horretarako plato bat propio muntatuko dute. Bildutako materiala, Udaleko Artxibategian gordeko da edozein hiritarrek kontsultatu ahal izateko. Gainera, hautatutako batzuk Bilbao izan web-orrian jarriko dira eta Udaren sare sozialetatik partekatu ere egingo dira. Halaber, Argazkineta dabilen bitartean, biltzen ari den materiala ikusgai egongo da furgonetan bertan. Eta bukatzeko, abenduan erakusketa bat egingo da Zorrotzan jasotako azagutzera emateko.

Ondo pasatzeko egitarau oparoa jaietan

Zorrotz Morrotz

Irailaren 27an hasiko dira auzoko jaiak. Urtero bezala, adin guztientzako ekitaldi ugari betetako egitarau oparoa prestatu du Jai Batzordeak aurtengoan ere, eta auzotar ororen parte hartzeko deia egiten dute. Dantatzeko, gozatzeko eta ondo pasatzeko aukera paregabea ematen du egitarauak bederatzi egun hauetan.

Eta jaietan ere euskararen erabilpena sustatu eta bultzatzeko asmoz, ekitaldi pare bat

babestu du Zorrotzako Euskal Txokoak, biak umeei zuzenduta. Irailaren 28an, eguerdiko 13:30ean, Xilipurdi antzerki taldearen "Tarantela" ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute txikieneak. Eta azken igandean, urriaren 6an eta goizez ere, txotxongilo tailerra eskainiko dute Xilipurdi eta Goloka antzerki taldeek 12etan Azoka plazan.

Egitaraua osorik ikusteko edota deskargatzeko, bilatu Jai Batzordearen profila facebooken eta bertan topatuko duzu.

Zorrotzako jaiak 2019

Zorrotzako Euskal Txokoak babestutako ekitaldiak

IRAILAK 28 LARUNBATA. 13:30ean

UMEENTZAKO ANTZERKIA.

XILIPURDI ANTZERKIA: "Tarantela"

URRIAK 6 IGANDEA. 12:00etan

TXOTXONGILO TAILERRA. Goloka eta Xilipurdi taldeak



Antolatzailea:



Babesleak:



ZORROTZAKO JAI BATZORDEA



ZORROTZAKO JAI BATZORDEA




ZORROTZAKO JAI BATZORDEA

Hainbat bertsozale bildu ziren Oihana Bartra eta Unai Iturriagaren saioak aditzeko Fray Juaneko Bertso Poteoan

Zorrotz Morrotz

Bigarren urtez jarraian antolatu dute Aitor, Zorrotza, 10 de Fray Juan, El Encuentro eta Askabide tabernek Bertso Poteoa. Ekitaldiak Euskal Txokoaren babesa izan zuen eta Unai Iturriaga eta Oihana Bartraren bertsoak aditzera hainbat lagun bertaratu ziren irailaren 13ko arratsalde-gau partean.

Bertsolariek saio txiki bat eskaini zuten taberna bakoitzean, entzuleek beraien edariarekin pintxo bana dohainik hartzen zuten bitartean. Hori gutxi balitz, tabernetan kamiseta bana zozkatu zen bertaratuaren artean. Espero dugu datorren urtean ere errepikatzeko aukera izatea!



**:Kasi
Mi Kasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPIALDEA-ZORROZGOTTI ILHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75

📧 sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21

📧 014159aa@hezakuntza.net



I.E.S.
ZORROTZA
B.I.

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 439 33 34 / 688 861 374

📠 94 439 97 41

📧 015078aa@hezakuntza.net

www.ieszorrotzabhi.hezakuntza.net

2019-2023 udal legegitzaldirako bere aldarrikapenak biltzen dituen txostena ezagutarazi du udan Auzo Elkartek

Aitor Marín

Zorrotzako Auzo Elkartek ekainean hasi zen legegitzaldi berrirako “gida” izango den txostena aurkeztu zuen uztaillean. Bertan Zorrotzarako “beharrezkoak” diren eskariak biltzen dira arloz arlo.

Hirigintzan aurkitu ditzakegu proiektu konplexuenak. Nola ez, aldarrikapen nagusia FEVE geltokiaren lurperaketa da, eta geltoki berriak sarbideak izatea auzoko erdigunetik eta Zazpi Landatik. Auzo-etxe berri baten beharra ere adierazten du txostenak: liburutegia, haur-liburutegia, KZ gunea, ikasgela, erakusketa gela, ospakizun-aretoa, bilkura gelak, oinarritzkoa zerbitzuak eta abar bildu beharko lituzke auzo etxe berri honek. Arlo honetan Zorrotzak duen industria ondasunaren mantendu beharraz ere ohartarazten da.

Lan eta zerbitzuen atalean kokatu dituzte Auzo Elkarteko kideek eskaera gehienak: Burtzeñara doan zubiaren estalketa; puntu beltzen desagerrarazpena; Zalbidea estratako, Usandizaga musikaria kaleko, eta Ikastalde eta Pinadia etxaldeetako espaloiak hobetu behar direla azpimarratzen du txostenak adibidez. Baina ez dira eskari bakarrik arlo honetan: Zorrozgoiti bidean zahar etxetik Flex lantegi zaharrerako eremuan espaloi bat egitea, Bilbotik datorren

bidegorria Barakaldoraino luzatzea eta Zorroztzaganeko haur jolasak estaltzea ere aipatzen dira, beste hainbat proposamenen artean.

Irisgarritasuna hobetzeko, Adiskidetasuna, Zorrotzako Lorategia eta Zazpi Landa etxe-taldeetan hobekuntzak premiazkoak direla aipatzen da. Jubilatuen egoitzan igogailu bat jartzea eta Zalbidea kaleko atzea Zorrotza Kastrexana errepideari lotzeko arrakala berri bat egitea ere eskatzen da.

Garraioan hainbat gabezia ere azaltzen dira: udan maiztasun gehiago eskatzen du elkar-teak; Bilbobuseko 28 linea Zorrotzarako hantitzea Altamiratik; Barakaldoko KBusak Fray Juaneko errotondan galeakua izatea; Renferko geltokira sarbide berria Fray Juan kaletik; eta batez ere, txartel bakarra indarrean jartzea.

Ingurumenari dagokionez, Sader enpresaren tokialdatzea eta inguruetakoa enpresa kutsakorren kontrola ezinbestekoa direla adierazten du txostenak. Kiroldegian ere beharrak antze-man dira eta atletismo pista eta gimnasialekuaren hobetzeak beharrezkoak ikusten dira besteak beste.

Txosten osoa irakurgai duzue Auzo Elkartearen facebookeko profilean.




ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Bidegain etxaldea



Etxe talde hau autopista gainean dau, Ikastaldek mugatzen dau mendebaldetik, Pinudiak ekialdetik eta egoan Zazpi landak.

Autopista egin baino lehen bolotan (bolo palma) jokatzeko aukera ona zegoen etxe talde azpian, giro ederra zegoen hiru tabernakaz, praktikantaren dispensarioa, auzoko partido komunistaren batzarlekue eta saldikiak saltzen eban Santi Amasunoren arategia, adibide batzuk botatzea-gatik.



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

“Milaka aukera dituzu hemen edozein egunetan nahi duzuna egiteko”



DIANA TEJEDOR

Bizitokia: Carabanchel. Madril (Espainia).

Noiztik: 2015etik.

Adina: 29 urte.

Lanbidea: Exekutiboa artekaritza batean.

Ikasketa kontuak zirela eta, duela 4 urte Zorrotza utzi eta Madrilera joateko aukera suertatu zitzaion Diana Tejedor auzokideari. Egun, artekaritza batean lan egiten du exekutibo moduan, eta lan-ordutegiaren malgutasunari esker, astean zehar hainbat ekintza burutzeko aukerak ditu.

Ibai Barrios

Nolatan eta zergatik joan zinen Madrilera?
Kriminalitate master bat ikastera.

Oso ezberdina da hango bizimodua hemengoarekin alderatuz?

Bai, Madril askoz handiagoa da Bilborekin konparatuz, edozein lekutara joateko 30 minutu behar dituzu eta. Gainera, nahiz eta 4 urte auzo berean egon, ez dut Zorrotzan bezalako integrazioa ikusi.

Gogorra egin zitzaizun hango lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Ez, hori ez da hain desberdina hemengo bizimoduarekin alderatuz. Berririo aipatuko nuke lehen esandakoa, hau da, garraio publikoetan galtzen dudan denbora.

Nolakoa da zure lana?

Nire lana ordenagailu baten aurrean emailak bidaltzean datza. Levante zonaldeko txostenak bideratzen ditut.

Zer da han gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gehien gustatzen zaidana da hainbat ekintza egiteko aukerak ditudala. Bestalde, gutxien gustatzen zaidana da hirian leku batek bestera joateko dauden distantziak. Oso handiak dira eta horretan denbora asko eman behar da garraioan, lehen aipatu dudana bezala.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Bai, astean hiru egun etxetik lan egiten dudanez, askotan Zorrotzara ordenagailua eraman dezaket zereginak burutzeko.



Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Kuadrilla, familia eta gurasoen janaria.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Asteazken zehar arratsaldeko 17:00ak arte lan egiten dut. Ondoren, zenbait gauza ikasten ditut. Asteburuan normalean lankideekin edo Zamorako herriko lagunekin elkartzeko naiz.

Zein izango litzateke zure ustez hango ezaugarriarik adierazgarriena?

Denetarik dago. Milaka aukera dituzu edo zein egunetan nahi duzuna egiteko.

Eta bukatzeko, Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu edo han geratzeko zara betiko?

Ez dakit. Betiko ez dut uste... baina, nork daki? Lan egiten dudana enpresa Bilbon dago, baina hemen ditudanekin alboratuta, baldintza txarragoekin...

Gainera, nire kuadrillako lagunak askotan etortzen dira bisita egitera eta nire familia eta ni askotan elkarrekin egoten gara, bai Bilbon, bai Zamorako Fresno de Sayago herrian. Beraz, nahiz eta kanpoan bizi, Bilbo eta Madril artean dagoen distantzia handia ez dut nabaritu.

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIAI**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza

BIZKAISALSA DANTZA ESKOLA

Bachata eta salsa erritmoan, aldaka mugitzeko gunea



Duela 13 urte 4 lagunen artean Bizkaiko I. Dantza Biltzarra antolatu zuten “BizkaiSaLSa” izenpean. Topaketa horretatik, 4 urte beranduago Zorrotzan kokatuta dagoen BizkaiSaLSa dantza eskola sortu zuen Roberto Salvador salsa irakasleak, gaur egun eskolako zuzendaria dena.

Testua: Naroa Peña eta Zurife Vila

Argazkiak: BizkaiSaLSa

BizkaiSaLSa, edozein adineko pertsoneri zuzendutako dantza eskola da; auzoko Zorrotza Kastrexana kaleko “Flex eraikineko” 138. lokalean kokatuta. Bertan, azken urteotan jarraitzaile ugari dituzten “salsa” eta “bachata” dantza karibetarrak eskaintzen dituzte batez ere, nahiz eta pasa den urtetik “zouk” eta “kizomba” dantza afrikar klaseak ere eskaini. Horretaz gain, umeentzako dantza moderno talde bat ere badaukate.

Eskolara Enkarterri, Ezkerralde zein Bilboko hainbat auzotako 300 pertsona inguru hur-

biltzen dira, eta kontrakoa pentsatu ahal izan arren, ikasleen gehiengoa gizonezkoak dira. Dantza klaseak eskaintzeaz gain, ostiralero Bilboko Rock Star diskotekan eta hilabetero 2 larunbatetan Boluetako “Sala Mito”n, Kari-betar Jaialdia antolatzen dute dantza gustuko duen edozeinek parte hartu dezan. Bertan, Bizkaiko herri eta adin anitzetako salsa eta bachata dantzari amateur zein profesionalak biltzen dira.

Aurten, gertu ditugun Zorrotzako Jaietarako, BizkaiSalsak bi ekintza antolatu ditu auzotarrak salsa eta bachata erritmoez mugitzeko asmoz. Horretarako, bigarren aste-



buruan, urriak 5, 12:30etik 14:30era Azoka parkean, bachata, salsa eta zouk klaseak eskainiko dira. Urriaren 6an, berriz, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era, berriro ere parkean Salsa eta Bachata dantza erakustaldia egingo da Mara Tumbao, Bilbao Baila Dantza Eskola, Fernando García eta Bizkai Salsa dantza eskolen esku; eta Bilbao Baila eta Bizkai Salsako Moderno Txiki taldeei esker Cumbantxa erakustaldiaz gozatzeko aukera izango dugu.

Anima zaitezte Zorrotzako Jaietan egingo dituzten erakustaldiak ikustera joaten. Edozein pertsona gai da musikaren erritmoa jarraitzeko. Adina zein gaitasun fisikoa ez daitezela oztopo izan dantzatzearaz gozatzeko eta jende berria ezagutzeko!

Dantza klaseak eskaintzeaz gain, ostiralero Bilboko Rock Star diskotekan eta hilabetero 2 larunbatetan Boluetako "Sala Mito"n, karibetar jaialdi bat antolatzen dute

Gertu ditugun Zorrotzako jaietan dantza erakustaldi bat egingo dute, eta bachata, salsa eta zouk klaseak eskainiko dituzte

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata, 12
94 490 12 59

AUTO ESKOLA
KAIKU

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-baztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

RAÚL MÉNDEZ: Bizkaiko Batzar Nagusietako diputatua

“ Ez dut politikara jauzirik egin; herri-politika egitetik, instituzio batean egitera pasatu naiz ”

Zer da politikoa eta zer ez? Politika instituzioetan ez ezik, batez ere herri eta auzoetan egin behar dela dio Raúl Méndezek. Horixe bera egin du berak gazte-gaztetatik ezker soberanistaren barnean. Hogeitabost urte baino gehiago garraio publikoaren sektorean lan eginda, EH Bilduren Mugikortasun Jasangarriko Taldean ere parte hartzen zuen. Eta maiatzaren 26ko foru hauteskundeetatik, Bizkaiko Batzar Nagusietako diputatua ere bada. Berarekin berbetan egon gara; non eta Gernikako Batzar Etxean.

Testua eta argazkiak: Aitor Marín



Hainbat gizarte mugimendutan ibilia zara. Sindikatuko delegatua... Politika ez da berria zuretzat, ezta? Nolakoa izan da zure ibilbide politikoa?

Ez da erraza ezberdintzea zer den politika eta zer ez... Oso gaztea nintzenean hasi zen nire ibilbidea. Euskarak honaino ekarri nauela esaten badut ziur aski ez nintzateke gezurretan arituko... Giro oso erdaldunean hasi nintzen euskara ikasten, eta horrekin batera, ikasle mugimenduan eta gazte mugimenduan hasi nintzen. Auzoan, herri mugimenduan ere laguntzaile gisa aritu naiz aspalditik, eta lanean hasi nintzenean sindikatuan afiliatu nintzen, eta azken bost urteetan enpresan ordezkari sindikala izan naiz.

Bizkaiko Batzar Nagusietarako hautagai izateko aukera heltzen zaizu, Bilboko barrutiko EH Bilduren bigarren postuan. Litekeena hautatua izatea zen... Nola bizi zenuen une hura? Ardura handia?

Beno, nire ardurak hala edo hola menperatzen ditudan arloak izango zirela esan zidatenean lasaitasun handiagorekin hartu nuen. Harremana izan dut aurreko legegintzaldiko kideekin, eta hainbatek errepikatzen dute taldearen osaketan, eta horrek ere laguntzen du. Beldur nagusia interbentzio publikoak egin beharra izan daiteke, baina pixkanaka-pixkanaka gauza horiei ere aurre egingo diedala uste dut.

Politika instituzionalarekin zure lehen kontakua da, ezta?

Ordezkarri instituzional gisa, bai. Bilboko Metron lan egiten dut, eta bai sindikatuan bai ezker soberanistan, beti egon naiz prest mugikortasunari buruzko gaietan laguntzeko. Hogeitabost urte eman ditut garraio publikoaren sektorean lanean, eta EH Bilduk mugikortasun jasangarria bultzatzeko sortutako lan taldearen partaidea nintzen. Garraio publikoan eta mugikortasuna lantzeko profila zuen pertsona bat behar zen oraingo honetan Bizkaiko Batzar Nagusietako taldean, eta ni proposatu ninduten. Ezetz esaten ez dakiten horietakoa naiz ni, eta bilkideen arteko barne bozketa baten ostean, hautagai hautatu ninduen EH Bilduren oinarri sozialak, eta hauteskundeetan biltzarkide atera naiz.

Politikan aritzen zinen, baina politika ez da zure ogibidea izan orain arte. Egoera hau aldatuko da?

Ez, printzipioz ez. Metron jarraituko dut lanean. Politikagintza egingo dut lanetik atera ostean, baina egia da baimenak izango ditudala batzorde eta plenoetara joateko deialdi ofizialak direnean, legediak horrela agintzen duelako. Horrela nahiago dut, eta gainera nire ustez inportantea da lan egiten duzun sektorearekin harremana ez apurtzea. Lan pila bat egin behar da eta ezin da talde osoa liberatu gabe egon, baina ni erosoago nago nagoen moduan.

“ Nire lanean jarraituko dut. Politikagintza egingo dut lanetik atera ostean. Inportantea da nire ustez lan egiten den sektorearekin harremana ez apurtzea ”

Mugikortasunaz aritu zara, baina zehazki zein izango da zure jarduna Batzar Nagusietan? Zertaz arduratuko zara?

Garraio eta Mugikortasun Jasangarrirako eta Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Batzordeetako bozeramailea izango naiz; Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordean berriz, bozeramaile ordea.

Aldaketaren bat nabari duzu zerrendan agertu edota hautatua izan zarenetik?

Ez, ohikoak diren lekuetan, inolako aldaketarik ez... Gogoan dut zerrendan nire izena agertu ostean askotan entzun nuen esaldi bat, eta esaten zidaten gehienak EAJko kideak ziren: “Politikara jauzia egin duzu”. Nik beti erantzuten nuen ez nuelako inolako jauzirik egin, balezik eta logika baten barruan, herri edo auzo politika egitetik instituzio batean egitera pasatu naizela, politika leku guztietan egiten delako.

51 diputatuetatik, 10 ditu zure taldeak. EAJ eta PSEren arteko itunaren ostean, egingo diren politikan eragina izan dezakezue?

Iniziatibak, mozioak, ... aurkezten jarraituko dugu, aurreko legegintzaldian egin bezala, baina egia da ez dagoela gure esku ekimen horiek aurrera ateratzea eta gobernua baldintzatzeko aukera gutxi dugula. Hala ere,

“ Nahasmen handia dago instituzioetan azken bolada honetan, hauteskunderen menpe bizi gara. Ez dakit hori ona edo txarra den, baina lan instituzionaletik aparte, egin beharrekoa, benetako politika, auzo eta herrietan egin behar da ”



taldeko kideek abisatu didate, aurreko lege-gintzaldietan gertatu zaielako, ez harritzeko aurkeztutako proposamena onartu ez, eta paragrafo bat edo esaldi bat aldatuta, gobernua- ren emendakina onartzen ikustean... Baina azken finean garrantzitsua ez da norena den onartzen den ekimena, baizik eta herritarren onerako ekimenak diren ala ez.

Nola ikusten duzu gaur egungo egoera po- litikoa?

Nahasmen handia dago instituzioetan. Hau- teskunderen menpe egon gara azken bi urtee- tan eta ematen du horrela jarraituko dugula. Ez dakit hori ona edo txarra den, baina lan instituzionaletik aparte, egin beharrekoa, be- netako politika, auzo eta herrietan egin behar da. Eta hau diot orain instituzioaren beste al- dean egonda...

Eta auzoan kokatuz, zelan konpondu daitez- ke auzoak dituen gabeziak?

Lehenengo eta behin gabeziak agerian utziz auzotik bertatik. Auzo eta herrietatik ez baga- ra gai aurrera eraman nahi ditugun ekimenak edo dauden gabeziak agerian uzteko, nekez etorriko da baten bat kanpotik Batzar Nagu- sietan edo Legebiltzarrean konpontzera. Nik beti esaten dut oso harro Zorrotzakoa naize- la, hemen herri mugimendua bizirik dagoela- ko, arlo ezberdinetan indar handia dauka eta proposamen askorekin. Orain dela gutxi Auzo Elkarteak txosten bat atera berri du ekimen desberdinekin arloz arlo. Auzoetatik ateratzen diren txostenak, aldarrikapenak, beharrak... ja- sotzea eta gureak balira bezala instituzioetan defendatzea izan beharko litzateke alderdien lana nire ustez. Nik nire arloari dagokiona jada egin dut, hainbat ideia baditut eta haiekin bil- tzeko asmoa ere badaukat, ideia horiek aur- kezteko eta haiekin eztabaidatzeko.

Bide horretan, zer egin dezakete EH Bilduk eta Raúl Méndezek Batzar Nagusietan Zo- rrotza hobetzeko?

Ba gauza zehatzetara baldin bagoaz, eta kon- tuan izanda gu ez gaudela gobernuan, eta gure jarduna proposamen eta ekimenetara mugatzen dela, adibidez, nik argi daukat Biz- kaibus zerbitzua hobetu daitekeela, maiztasu- na adibidez unibertsitatera doan autobusean.

Konbentzituta nago, eta horren aldeko plataforman lan egin dut azken urte hauetan, txartel bakarra dela inbertsiorik onena Zorrotzarako. Hori lortuta aukera izango genuke leku jakin batera joateko edozein garraiobide hartuta prezio bera ordainduta. Tematuta nago Zorrotzara datorren bidegorria kiroldegian ez bukatzea lortzeko, Barakaldora lotzeko eta Bilbotik Muskizera inoko bidegorri osoa osatzeko Ezkerraldean. Nire arloan gauza batzuk ditut jada buruan, Batzar Nagusien menpe daudenak. Beste gauza batzuk, adibidez FEVEren gaia, Madrilgo Kongresuan lantzen dira, baina oso harreman estua dugu erakunde guztieta-ko ordazkeriekin, izan daitezke Oskar Matute edo Jon Inarritu Madrilen, Larraitx Ugarte Gasteizeko Legebiltzarrean edo Bruno Zubizarreta zinegotzia Bilboko Udalean: horiek ere landuko ditugu, dena ez baitago aldundiaren menpe.

Agian goiz da galdera hau egiteko, baina politika instituzionalean jarraitzea gustatuko litzaizuke legegintzaldi hau bukatu ostean?

Hartu dudak konpromisoa lau urterako da. EH Bildun instituzio berean aritzeko zortzi urteko muga dago. Ikusiko dugu lau urte hauek zelan doazen, baina ni momentuz kementsu eta gogotsu nabil eta prest egongo nintzateke beste legegintzaldi batean aritzeko. Baina ez da soilik nire iritzia, EH Bildu eta bilkideen iritzia ere kontuan hartu behar da, jakina. Beste bozketa bat egongo da, bilkideek proposatu behar naute berriro eta horren ostean berriro bozkatu eta hautatu barne prozesu horretan. Esan bezala, momentuz kementsu eta ilusioz egingo diot aurre legegintzaldi honi.



LABURREAN

Pertsonaia politiko edo historiko bat aukeratu behar duzu: Euskal Herrian?...

Josu Muguruza kazetaria eta militante fina aipatuko nuke. Zohardia ezizenarekin sinatzen zuen Egin egunkariko bere zutabea..

Nazioartekoan? Asko daude... Nelson Mandela agian.

Telebista eta irrati-tertulia politikoak ala telefilmak?

Ikusteko, telefilmak dudarik gabe. Baina zorionez edo zoritxarrez tertulia horietan aritzen hasia naiz...

Teleberria ala egunkaria?

Egunkaria.

Egunkariaren azalean irakurtzea gustatuko litzaizukeen albisteak?

Pare bat, bat Euskal Herri mailakoa eta bestea Zorrotzarako: "Euskal Herria 2026, jende zoriontsua herri libre batean" eta "Zorrotza 2026, trenbide pasabide gunerik gabeko auzoa".



**Taberna
Aitor**
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

Zure **2. LENTE**
PROGRESIBOAK
DOAN
Varilux barne.

* Sustapena indarrean armaioa ere erositu eta graduazio berdinarekin.

RPS: 213/18

ibaretaluxury
OPTICA



BAR VENECIA
Especialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak
Abaro estrata 10
AUPA ATHLETIC

Urriak 4 ostirala


20:00 Gaztetxean.

Kontzertua:

CONFLICT NOISE + HEX

Zorrotzako jaiak 2019

irailaren 27tik urriaren 6ra



ZORROTZAKO JAIK 2019

Zorrotzako Euskal Txokoak babestutako ekitaldiak:

Irailak 28 larunbata

13:30 Azoka parkean.

Umeentzako antzerkia:

XILIPURDI ANTZERKIA:

"Tarantela"

urriak 6 larunbata

12:00 Azoka parkean.

Txotxongilo tailerra:

GOLOKA eta XILIPURDI TALDEAK:

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (iraila-urria-azaroa) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi azaroaren 8a baino lehen.

Txinbo-txanpi



Osagaiak: txanpia, ogia, urdaiazpiko ondua, maionesa, baratxuria, perrexila eta osagai sekretua.

Hasteko plantxa berotzen dugu eta txanpiak gainean jartzen ditugu. Jalkitzen utzi behar ditugu pixkatxo batean.

Hurrengo pausoa, txinbo saltsa egitea da. Baratxuria zatitxotan moztu eta maionesarekin nahasten dugu. Osagai sekretua ere botatzen diogu. Txanpi gainean jartzen dugu nahasketa.

Ogi puxka bat hartu eta urdaiazpiko ondu xerra jartzen diogu gainean. Ondoren txanpiak bere gainean. Bukatzeko nahierara apaintzen dugu.

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 2 €

TXINBO TABERNA

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 07:00etatik 23:00etara

Larunbatetan: 08:00etatik 24:00etara

Igandeetan: 08:30etik 23:00etara

Abaro estrata, 10.



Doinua:

Gure aurreko guraso zaharrak

Uda laster amaituko dela

nabarmena baldin bada

bertso batzuk jarriko dizkiot

ahala ez baita traba

egun hauetan ibiltzen gara

sarri hona eta hara

irailak aldaketak dakartza

hasieraren zirrara

eta gainera hasiera hori

urtero desberdina da

Asier Urkiza



Derbia.

Joan Mari Irigoien Aranbarri. Elkar. 2019. 284 orrialde.



Umorezko eleberri bat idatzi du Joan Mari Irigoienek, futbolaren munduan girotua. Protagonistak, baina, ez dira futbolari eta entrenatzaileak, baizik eta futbolzaileak: Realaren aldeko bikote bat eta Athleticeko aldeko beste bat, hiri eta plaza berean bizi direnak baina elkarri bizkar emanda eta muzin eginda, zein baino zein itsuago eta sutsuago. Abiapuntu horrekin, kontakizun jostalari bat eraiki du egileak, gai serioei eta asmo transzendentei ihes egiten dien satira lotsagabe bat, gure gizarte honetako joera makur batzuk irrigarri utzi eta irakurleari barre eta algara eginarazi nahi dizkiona. Gonbidatuta zaude, beraz, kexak eta penak alde batera utzita, kontakizun ganberro hau dastatzera. On egin!



Patx & Run:

Itzalak (Autoekoizpena) 2019



Aiaraldeko eta Enkarterriko 7 lagunek osatzen dute Patx & Run taldea. Zortzi abestiz osatutako "Itzalak" izeneko lan berria dakarte besapean, uda hasieran kaleratutakoa. Pedro J. Mongeren (Vhaldemar) gidaritzapean, Asuako Chromaticity estudioetan grabatu dute diskoa. Metalaren influentzia nabaria da, batez ere kitarra eta bateriaren soinuari erreparatu gero. Dena den, publiko orokorra bati zuzendutako doinuak ere izango ditu entzuleak. Emakume ahots zein haize instrumentuen erabilerak freskotasuna ematen die abestiei. Hizkuntzari dagokionez, euskara nagusi bada ere, gaztelaniz egindako 3 abesti sartu dituzte aniztasun handiagoa izateko. Horri lotuta aipatu behar da arraroa baina era berean positiboa dela gaur egun metala eta estilo gogorrak lantzen dituen talde batean emakumearen ahotsa entzutea. Batez ere azken urte hauetan normalean beste era batzuetako proposamenetan entzun izan dugulako. Gainera, pasarte indartsu hauetan lehen aipatutako haize instrumentuak sartzeko ausardia ere izan dute, aire berriak ekarriz. Azalaren diseinuari dagokionez aipatu behar Iñigo Arr-ek egindako lan txukuna.

Ibai Barrios

cafetxinbo****

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

Jaietan ere matxismoari kontzesiorik ez

Abuztu hasiera beroa izan genuen Bilbon Aste Nagusiko kartelaren harira, hainbat emakume eta feminista altxatu baitziren C. Tanganaren kontratazioaren aurka, baita hori atzera botatzea lortu ere. Argudioa sinplea bezain sendoa: Ez gaude prest heteropatriarkatuaren partetik emakumeok pairatzen dugun zapalkuntzaren apologia egiten duen inoren bozgorailu izateko, ezta egunero hiltzen gaituen ereduari eusten dion diskurtsoa zabaltzera datorrenaren kutxa betetzeko ere.

Berehala piztu zen eztabaida. Baina debateak askok espero ez genuen norabidea hartu zuen, eta trap abeslariaren aldeko mezuak zabaldu ziren sare sozialetan adierazpen askatasunaren aitzakiarekin –gehienak gizonetako heterosexualek idatziak, noski-, eta kontzertua bertan behera uztea zentsura zenentz bihurtu zen eztabaidagai nagusia. Maisu-jokaldi batean, zapaltzailea zapaldu eta biktimak berrero bilakatu gintuzten, maiz gertatu ohi den bezala; eta emakumeok beti eta edonon pairatzen dugun zapalkuntza basatia atzeko planoan zokoratzea lortu zuten berriro ere, eta kolektibo oso baten eskubideak gizon bakar baten ustezko eskubideen mendean jarri zituzten.

Baina desitxuratu nahi izan badute ere, hortxe dugu benetako eztabaida; eta lehenago ala beranduago, nahi zein nahi ez, heldu beharko diogu gaiari, eta jarrera argia hartu. Feminismoan, beste hainbat kontutan bezala, ez baitago erdibiderik: edo bagara, edo ez gara. Eta

baldin eta bagara, gure artean azken boladan hain garatuta eta hedatuta dauden diskurtso eta slogan feministak ederrak bezain hutsalak ez izatekotan, praktika koherentea ezinbestekoa dugu. Eta horri eusteko beharra daukagu, une guztietan eta bizitzako alor guztietan, maila publikoan zein pribatuan: harreman pertsonaletan, etxean, lanean, kalean, gizarte sareetan, ... baita jaietan ere.

Horregatik, feministak bagara eta gure jai-guneak benetako gune askeak izatea nahi badugu, ez da nahikoa Bea Sever bezalako pegoilariak jartzea; txosnak eta jai-eremuak erasotzaileen kontrako pankartez, kartelez, eta abarrez jostea; eraso sexistei aurre egiteko protokoloak ezartzea; edota paparra txapa moreez apaintzea. Feministak bagara, ezin dugu onartu emakumearen kosifikazioa, mendekotasun-harremanak eta emetasunaren zein gizontasunaren eredu oker eta maltzurak sustatzen dituzten abesti eta eszenografia lizunak erreproduzitzen dituzten taldeek oholza hartzea; ezta txosnetako bozgorailuetatik abestiz moztortutako lelo iraingarriek gu erasotzea ere. Feministak bagara, jaietatik ere kutsu matxista duen oro desagerrarazi behar dugu. Hortik abiatuta, deitoragarria dena ez da kontzertu bat feministen presioengatik atzera bota behar izatea; horrelako ikuskizun umiliagarriak egin ez daitezten presioa egin beharra baizik.

Ez dezagun ahaztu egiten duguna garelara, ez esaten duguna; eta gure jaietan zer kanta entzungo diren edo zein talde ekarriko dugun aukeratzean ere jarrera hartzen ari garelara. Hortaz, gure esku dago egunero zapaltzen, iraintzen eta umiliatzen gaituen matxismoaren konplize izatea ala gaitz hori gizartetik erauzteko gure aletxoa jartzea. Berdin dio zein erritmotan: reggeaton, cumbia, hip-hop, pop, heavy... guztiek balio dute aldakak, gerria, burua zein titiak astintzeko; baita gizartea eraldatzeko ere. Gakoa ez baitago erritmoan, mezuan baizik. Ez gaitzen haien konplize izan. Zorrotzan ere, gizarte feministaren bidean, desagerrarazi ditzagun sexismoaren adierazpen guztiak gure jaietatik.

Alaitz Aldabaldetrekua

*Regalos
Omega*
oparidenda

Fra Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ

aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:

zorrotz@gmail.com

ZORROTZA

(Bilbo)

ZORROTZA HELTZKO:



Bilbobus

• 18 • 85 • 88

Bizkaibus

• A3115 • A3116 • A3122 • A3136

• A3137 • A3144 • A3336

• A3341 • A3342 • A3343



renfe

• C1 • C2 (Zorrotza)

feve

(Zorrotza)

metro bilbao

Gurutzeta. Geltokitik 10 minutu oinez

> irailak 27, ostirala > 23:00

TXIMELETA taldea

> irailak 28, larunbata > 23:00

KRESALA

> urriak 3, osteguna > 20:30

ROCK MARATOIA
(BERTAKO TALDEEN LEHIAKETA)

> urriak 4, ostirala > 22:30

ROCK MARATOIAREN
IRABAZLEA

HITS

GOVERNORS.

> urriak 5, larunbata > 23:00

WAYKAS FAMILY orquesta



AUZOTARROK



ZORROTZA
JAI BAZARDEA

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Hizkuntzek, hizlariak osatzen duten gizartearen edo taldearen izaera historikoa eta kulturaleko aztarnak gordetzen dituzte. Generoaren erabilerrari begiratuta, mota desberdinetako hizkuntzak badaude: bi genero edo gehiago erabiltzen dituztenak (bi genero erro latineko hizkuntzetan, hiru genero alemaneran, sei genero swahilian...) eta generorik erabiltzen ez dutenak (euskara, suomiera eta mongoliera, besteak beste).

Hala ere, ez da zuzena esatea generoa daukatenak sexistagoak direla besteak baino,

generorik gabeko hizkuntzak ere era sexistan erabili baititzaiegu. Gehienetan, hizkuntzaren sexismoa bere hiztunen erabiltzean dago eta ez hizkuntzaren sisteman, hiztunek adierazteko modua aukeratu eta erabilerara bidezkoa egitea aukeratu dezaketelako. Beraz, hizkuntzaren erabilera ez sexista egiteak, esfortzua behar du gure partetik.

Gainera, euskaldun gehienak elebidunak garelako kontuan hartuta, askotan gaztelaniaz hitz egitean erabiltzen ditugun markak eta erabilera sexista kopiatzen ditugu. Adi hauek ekiditeko!

SALAKETA ARGAZKIA



Usain txarrak jasateaz nazkaturik gaude

Noiz arte jarraitu behar dugu onartezinak diren usain txarrak jasaten? Uda honetan arratsalde askotan giro jasanezina sortu dute Zorrotza inguruan dauden enpresa kutsakorrek. Egingo du noizbait Bilboko Udaleko Udal Gobernuak zerbait egoera hau konpontzeko? Zorrotzako auzokideok nazkaturik gaude. Aski da!

MADNESS KAFETEGIA
 Elena eta Javier
 Zalbidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
 48013 BILBO



MADNESS

Tel. 94 441 62 75

ARIN GRAF, S.L.

INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
 Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
 hanburgesak,
 oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Kuadrillen arteko IX. Txapelketa

Duela 9 urte Gure Lurra Elkarteak Zorrotzako jaietan tradizionalki ospatzen zen kuadrillen arteko txapelketa errekuaratzeko asmoari ekin zion. 9 urteren ondoren, txapelketa gero eta biziago dago, kuadrillak bere kabuz antolatzen dira eta proba ezberdinak prestatzen dituzte 9 jai egunetan zehar auzoari bizitza emateko.

Hiru kategoria ezberdin daude txapelketan:

- **KID:** 2006, 2007, 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoak.
- **JUNIOR:** 2002, 2003, 2004 eta 2005 urteetan jaiotakoak.
- **SENIOR:** 2001 urtean edo lehenago jaiotakoak.

Kuadrillen arteko lehiaketa honetan parte hartzeko ctl@gurelurra.org emailera bidali behar dizkiguzue zuen izenak, adinak eta parte-hartzaile kopurua. Auzoka Komunitate Zentritik pasatu ahal zarete informazio gehiago biltzeko.

Mota honetako ekintzek adin ezberdinetako pertsonen arteko harremanak sendotzen dituzte, auzo bizitza hobetzen dute eta gure jaiak identitate berezia ematen diote.

Jaiak modu berezian bizi nahi badituzu zure lagunekin, edo hain lagun ez diren pertsonekin, apunta zaitezte lehiaketara, ez zarete

IX CONCURSO DE CUADRILLAS Zorrotzako Jaiak 2019

IX. KOADRILA LEHIAKETA



Presta zaitez zure koadrillarekin eta ez ahaztu izena emateaz irailaren 24a baino lehen!
¡Prepárate con tu cuadrilla y no olvides apuntarte antes del 24 de septiembre!

Izena emateko: -Auzoka Komunitate Zentroa/ Centro Comunitario Auzoka
Para apuntarse: -Vía e-mail: ctl@gurelurra.org

Patrocinado por / Laguntzen du:



Reunión Informativa:
19 de septiembre
18:30 Centro Cívico

Informazio bilera:
Irailak 19
18:30 Auzo Etxean

 **Zorrotzako Jai Batzordea**



damutuko. Irailaren 19an, osteguna, arratsaldeko 18:30etan informazio bilera egingo dugu Zorrotzako Auzo etxean. Ez galdu aukera eta parte hartu!



Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkar gutz)
Eguneko menua



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



Afariak ostirala
eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna:
katxopoa.
Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA



Sonia

Bai, banekien.
Deitoragarria iruditzen
zait! Auzo utzia da
Zorrotza Bilboko
Udalarentzat.



Raquel

Gutxiegi da. Askoz
gehiago eman
beharko lukete talde
onak eta ekitaldi
gehiago ekartzeko
auzoetako jaietara.

Auzoko jaietarako udalaren inbertsioa:

Badakizu zenbatekoa
den? Zer deritzozu?

Naroa Peña



Adelmo

Banekien gutxi zela,
baina ez kopuru
zehatza.
1500 euro oso gutxi
dira jai guztietarako.
Horrela ezin da!
Laguntza handitu
beharko litzateke.



Miguel Ángel

9 egun irauten
dute jaiak eta diru
kopuru horrekin ezin
da gauza handirik
antolatatu.



Elena

Oso urria iruditzen
zait. Orain arte izan
ditugun festa politei
eutsi ahal izateko
beharrezkoa da diru
gehiago.

**Bar
basarri**

**PINTXO
ASKOTARIKOAK**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 10
48013, Zorrotza

SAZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

1/6

Zor-baki hau produktuen
erakusaren adierazlea da.
1/6 zorbakiaren erakus
adierazten du, eta 5/6
zorbakiaren, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Enkuntuen Gordailuak
Bermatzeko Funtsean atokita dago. Funtse
hori unaren 14ko 162011 Errege Dekretuan
aurreikusita dago. Funtse horiek gaur egun
gehienaz 100.000 euro bermatzen dituzte
ordainketa bakoitzeko.

KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ
KOMISIORIK EZ



GAZTEA bazara, komisioak alde batera

Komisiorik ez **gazte-kontuan** eta **K26 txartela** mantentze-kuotarik gabe*.

*Gazte Kontua: Titular guztiek 30 urte baino gutxiago eduki behar dituzte.
ITN / UTB: %0. K26 txartela: 18 eta 26 urte arteko gazteentzat.

AMETS EGITEA BAINO,

EDUKITZEA HOBE

KUTXABANK
KORNER
kutxabankkorner.eus

ARGAZKINETA

OROITZAPENEN GAIKAKO BILKETA
RECOGIDA SELECTIVA DE RECUERDOS

ZORROTZA



ON-LINE BIDALTZEKO

Udal webgune honetan
[www.bilbaokultura.eus/
bilbaoizan](http://www.bilbaokultura.eus/bilbaoizan), urriaren 10etik
urriaren 31ra arte.

RECOGIDA ON-LINE

A través de la web
municipal
[www.bilbaokultura.eus/
bilbaoizan](http://www.bilbaokultura.eus/bilbaoizan), del 10 de
octubre al 31 de octubre.

ZER BILDUKO DUGU?

XX. mendeari eta Zorrotzako
auzoari buruzko materiala:
argazkiak, diapositibak,
bideoak, egunkarietako
berriak,...

¿QUÉ MATERIALES RECOPILAREMOS?

Material que haga referencia al
siglo XX y al barrio de Zorrotza:
fotografías, diapositivas, vídeos,
recortes de periódicos,...

NOIZ?

Urriaren 10etik 24ra.

¿CUÁNDO?

Del 10 al 24 de octubre.



 BilbaoKultura   Bilbao Izan

 www.bilbaokultura.eus


BILBAO

ondarearen sustapena
promoción del patrimonio


Bilbao